

I. ERANSKINA

BIGARREN JARDUERA KO LANPOSTUEN ZERRENDA

LEHENTASUNA: 1

TALDEA: Ibilgailuen eta lanabesen mantentze-lanak			
Noren menpe: Gai Teknikoen, Logistikaren eta Ekipoen Atala.			
Taldearen helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuaren ibilgailuak erabiltzeko moduan mantentzea. • Aginte Postu Aurreratuaren mugikortasuna eta instalazioa segurtatzea. 			
Eginkizunak: Ibilgailuen azterketa teknikoak antolatzea eta egitea. <ul style="list-style-type: none"> • Ibilgailuen prebentziorako eta zuzenketak egiteko mantentze-lanak antolatzea eta gauzatzea. • Aginte Postu Aurreratu mobilizatzea. • Ibilgailuen egoeraren jarraipenaz arduratzea. • Jarraipena egitea ibilgailuei erregaia jar dakien, albaranak kontrolatzea. • Ibilgailuen inbentarioa kontrolatzea. • Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanen jarraipenaz eta kontrolaz arduratzea. • Konponketa txikiak egitea (erretako lanparak aldatzea, etab.). • Ibilgailuen funtzionamenduari, maneiuari eta mantentze-lanei buruzko jarraibideak eta eskuliburuak prestatzen eta eguneratzen laguntzea. • Bere eskumenaren esparruan metodoak eta prozedurak prestatzen eta ezartzen laguntzea. • Ibilgailuak gidatzearen eta mantentzearen etengabeko irakaskuntzan laguntzea, suhiltzaile etheen sarean. • Ibilgailuekin lotuta esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak. 			
Ordutegia :	08:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera.	Prestasuna:	Astelehenetik ostiralera, 20:00etatik 08:00etara, baita asteburuak ere.
Eskura dauden postuak:		Antolaketa postu bat eta oinarrizko 5-6 postu	
Taldearen kokapena:		Cordovillako suhiltzaileen etxe nagusia.	
Arriskuaren ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Gidatzean izandako trafiko istripuak. • Ibilgailuen mantentze-lanetan izandako lesioak. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • B mailako gidabaimena antolaketa posturako eta C mailakoa oinarrizko postuetarako. • Ibilgailu arinen eta astunen mekanika ezagutzak. • Ibilgailuen ponpa eratzeari eta funtzionamenduari buruzko ezagutzak. 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Aginte Postu Aurreratuaren muntaketa eta instalazioa ezagutzea. • Zerbitzuan dauden lanabes hidrauliko, pneumatiko eta mekanikoen mantentze-lan teknikoak jakitea. • Konponketak kudeatzeko ezagutzak • Informatika ezagutzak: word, excel, datu baseak. 			
Behar diren garraio bitartekoak: Furgoneta bat.			
Oinarrizko ekipamendua: Oinarrizko lanabesen eta ekipo informatikoen ekipamendua.			

TALDEA: Arnas egiteko ekipo isolatuak eta ekipo berezien mantentze-lana			
Noren menpe: Gai Teknikoen, Logistikaren eta Ekipoen Atala.			
Taldearen helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Arnas egiteko ekipo isolatuak erabiltzeko moduan mantentzea. • Erabiltzeko moduan mantentzea gasak detektatzeko ekipoak eta babes kimikorako norbera babesteko ekipoak. • Uretako Erreskate Taldeari laguntza teknikoa ematea ekipoak mantentzeko. • Suhiltzaile etxeetako langileei irakastea ekipoak mantentzen eta garbitzen. 			
Eginkizunak: <ol style="list-style-type: none"> 1.- Honako ekipo hauen kontrolaz, berrikuspenaz eta mantentze-lanez arduratzea, bai lantegi nagusian bai suhiltzaile etxeetan: <ul style="list-style-type: none"> • Arnasketa autonomoko ekipoak: Maskarak, erreguladoreak, oinarritzko ekipoak eta kontrol elektronikoko unitateak. • Zirkuitu itxiko ekipoak. • Botilak. (Urteko ikusizko ikuskapena eta birzigitzeen kontrola) • Konpresoreak. • Babes kimikorako jantziak. • Gasak detektatzeko ekipoak. 2.- Arnas egiteko ekipo isolatuak eta babes kimikorako jantziak garbitzea eta desinfektatzea. 3.- Botilak aire konprimituz betetzea. 4.- Ekipo berezietarako ordezkotz piezen jarraipenaz eta kontrolaz arduratzea. 5.- Ekipo berezien inbentarioak kontrolatzea. 6.- Ekipo berezien materialen eta jantzien mantentze-lanaz eta kontserbatzeaz arduratzea. 7.- Zerbitzuko langileei prestakuntza ematen laguntzea, ekipo bereziak erabiltzeari eta mantentzeari dagokienez. 8.- Kanpoko enprekin kudeatzea gasen berrikusketak eta gasen karga. 9.- Ekipoekin erlazionatuta esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak. 			
Ordutegia:	7 h / astelehenetik ostiralera.	Prestasuna:	Astelehenetik ostiralera, 20:00etatik 08:00etara, baita asteburuak ere.
Eskura dauden postuak:	5 - 6		
Taldearen kokapena:	Cordovillako suhiltzaileen etxe nagusia		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Objektuak jaurtitzea, mekanismo presurizatuak maneiatzeagatik. • Eskuzko lanabesak erabiltzeak ekarritako lesioak. • Trafiko istripuak gidatzean. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • B gidabaimena izatea. • Mekanikako ezagutzak 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Arnas egiteko ekipo isolatuak eta konpresoreak mantentzeko ezagutzak. • Gasen detektagailuak kalibratzeko ezagutzak. • Babes kimikorako jantziak mantentzeko ezagutzak. • Informatika ezagutzak: word, excel, datu baseak. 			

Behar diren garraio bitartekoak: Furgoneta bat.
Oinarrizko ekipamendua: Arnas egiteko ekipo isolatuen ekipamendu berariazkoa eta ekipo informatikoak

TALDEA: Biltegi zentrala eta ekipoak.			
Noren menpe: Gai Teknikoen, Logistikaren eta Ekipoen Atala.			
Taldearen helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Biltegi zentrala erabiltzeko moduan mantentzea. • Materialen eta ekipoen mantentze-lanak eta konponketa txikiak egitea. 			
Eginkizunak: <p>Biltegi zentraletik jantziak, materialak eta ekipoak banatzea suhiltzaileen etxeetara.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jantziak, materialak eta ekipoak jaso eta hornitzaileen instalazioetara eramatea. • Biltegi zentralako jantziak, materialak eta ekipoak jasotzea, manipulatzeko eta entregatzea. • Biltegi zentralako izakinak kontrolatzea. • Biltegi zentralako eskaerak prestatzea. • Basoetako kanpainarako jantziak, materialak eta ekipoak prestatzea. • Ekipoak eta materialak markatzea. • Ekipoen mantentze-lan prebentiboa eta zuzentzailea: esku-argiak, lantzak, motoponpak, sorgailuak, ekipo oleohidraulikoak... • Zerbitzu operatiboko su-itxalgailuen kontrola, berrikusketa eta segimendua (egoki diren fitxak bete) • Ordena eta garbiketa biltegi zentralan. • Inbentarioak, materialak, ekipoak eta ekipamendu operatiboa kontrolatzea eta haien egoeraren berri izatea. • Bere eskumenaren esparruan metodoak eta prozedurak prestatzen eta ezartzen parte hartzea. • Aipatutako eginkizunekin zerikusia izanik, esleitzen zaizkion gainerakoak. 			
Ordutegia:	7 h / astelehenetik ostiralera.	Prestasuna:	Behar operatiboen arabera
Eskura dauden postuak:	2 – 3		
Taldearen kokapena:	Cordovillako suhiltzaileen etxe nagusia		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Istripua zamak mugitzeko ekipoekin. • Trafiko istripuak gidatzean. • Lesio muskulu-eskeletikoak biltegiko materialak erabiltzean. • Lesioak, lanabesa erabiltzean. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • B gidabaimena izatea. • Orga jasotzaileetarako gidabaimena izatea. • Ekipoak eta materialak eratzeko eta funtzionatzeko ezagutzak. • Informatikako oinarrizko ezagutzak 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Informatika ezagutzak: word, excel, datu baseak. 			
Behar diren garraio bitartekoak: Furgoneta bat.			
Oinarrizko ekipamendua: Orga jasotzailea, transpaleta, oinarrizko lanabesak eta ekipo informatikoak.			

TALDEA: Suhiltzaile Etxe Nagusiko Komunikazioen Zentrala			
Noren menpe: Esku-hartze Operatiboaren, Suhiltzaile Etxeen, Kanpainen eta Taldeen Atala			
Taldearen helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Cordovillako suhiltzaileen etxe nagusiko Komunikazioen Zentralaren funtzionamenduz arduratzea. • Suhiltzaileen etxe nagusiko sarbideak kontrolatzea. 			
Eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> • SOS Nafarroako larrialdi deiak jasotzea, eta J21ek, J23k eta/edo Cordovillako eta Trinitarioetako etxeetako baliabideek parte hartzen duten esku-hartzeen jarraipenaz arduratzea. • Gorabeheraren eta kokapenaren datuak eta informazioa ematea esku hartzen ari diren langileei. • Suhiltzaileen zirkuitu itxiko kamerak kontrolatzea. • Garajeko ateak irekitzea eta ixtea. • Harrera egitea biltegi zentralako hornitzaileei, mantentze-lanak eta obrak egiten dituzten enpresei eta bisitei. • Langileak errekrutatze deiak kudeatzea. • J21 guardiako sarjentuak esleitzen dizkion gainerakoak, bereziki Cordovillako etxean kokatutako beste talde batzuei laguntza ematea, zerbitzuan bi pertsonak bat egiten dutenean. 			
Ordutegia:	08:00etatik 20:00etara eta 20:00etatik 08:00etara	Prestasuna:	Behar operatiboaren arabera
Eskura dauden postuak:	8 - 9		
Taldearen kokapena:	Cordovillako suhiltzaileen etxe nagusia		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Ez da arrisku berariazkorik ikusi. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • Informatikako oinarrizko ezagutzak. 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • SIGANERi buruzko ezagutzak. • Esku Hartzeko Parteen Kudeatzailearen ezagutzak. • Suhiltzaileen etxeko instalazioen ezagutzak. 			
Behar diren garraio bitartekoak: ezta bat ere			
Oinarrizko ekipamendua: Komunikazioen zentralako ekipamendu tekniko eta instalazio orokorren kontrol sistemak.			

TALDEA: Sarrerarako, mantentze sustapenerako eta sustapen bereziturako prestakuntza.			
Noren menpe: Prestakuntza Atala.			
Taldearen helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Laguntza ematea Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan sarrerarako eta sustapenerako ematen den prestakuntzarako. • Zerbitzuaren barneko prestakuntza ekintzetan laguntzea. 			
Eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> • Sarrerarako eta sustapenerako ikastaroen kudeaketan eta logistikan laguntzea • Basoetako kanpainen ikastaroen kudeaketan eta logistikan laguntzea. • Suhiltzaile boluntarioen ikastaroen kudeaketan eta logistikan laguntzea • Prestakuntzarekin lotuta esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak. 			
Ordutegia:	7 h / astelehenetik ostiralera.	Prestasuna:	Prestakuntzako beharren eta behar operatiboen arabera
Eskura dauden postuak:	3 – 4		
Taldearen kokapena:	Etxe Nagusia		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Trafiko istripuak gidatzean. • Lesioak, materialak eta ekipoak erabiltzean eta lekuz aldatzean. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • C motako gidabaimena izatea. • Informatikako oinarrizko ezagutzak. 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Informatika ezagutzak: word, excel, datu baseak. • Prestatzaileen prestakuntza 			
Behar diren garraio bitartekoak: Norbera bidaiatzeko ibilgailu bat.			
Oinarrizko ekipamendua: Prestakuntza jarduerako ekipamendu berariazkoa eta ekipo informatikoak.			

LEHENTASUNA: 2

TALDEA: Suhiltzaile boluntarioen sareari laguntza ematea			
Noren menpe: : Esku-hartze Operatiboaren, Suhiltzaile Etxeen, Kanpainen eta Taldeen Ataleko burua			
Taldearen helburua: <ul style="list-style-type: none"> • Suhiltzaile boluntarioen sarearen jarduera operatiboari laguntza ematea. 			
Eginkizunak: Maniobrak gauzatzen laguntzea. <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuko unitateek suhiltzaile boluntarioen sareari ematen dioten laguntza teknikoa koordinatzea. • Prebentzio jarduerak koordinatzea suhiltzaile boluntarioen etxeen eta erreferentziazko eskualde-etxeen artean. • Suhiltzaile boluntarioen etxeetako ibilgailuen, materialen eta ekipoen inbentarioak gainbegiratzea. • Egindako esku-hartzeen kudeaketa gainbegiratzea. 			
Ordutegia:	7 h / astelehenetik larunbatera.	Prestasuna:	Prestakuntzako beharren eta behar operatiboaren arabera
Eskura dauden postuak:	2 – 3		
Taldearen kokapena:	Erdialdeko, Pirinioaldeko eta alde kantauriarreko suhiltzaileen etxeak.		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Trafiko istripuak gidatzean. • Lesioak, materialak eta ekipoen erabiltzean eta lekuz aldatzean. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • B gidabaimena izatea. • Informatikako oinarriko ezagutzak. 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Informatika ezagutzak: word, excel, datu baseak. 			
Behar diren garraio bitartekoak: Norbera bidaiatzeko ibilgailu bat			
Beharrezko ekipamendua: Ez dago ekipamendu zehatzik.			

TALDEA: Basoetako suteen prebentziorako eta itzalketarako laguntza			
Noren menpe: Aurreneurri, Ikuskapen eta Zabalkunde Atala.			
Taldearen helburuak: Basoetako kanpainen prebentzio eta mantentze lanei laguntzea.			
Eginkizunak: Egiaztatzea zer kokapen eta egoera duten ur-puntuek, sarbideek eta basoetako beste baldintza prebentibo eta operatibo batzuek. <ul style="list-style-type: none"> • Agindutako erreketak egiteko eskatutako finkak eta lurzatiak ebaluatzea eta baloratzea. • Basoko suteei aurrea hartzeko taldeei (EPRIF) laguntzea, beren jarduerak berezkoak dituen aldez aurreko lanetan eta lan operatiboetan. • Basoetako suteen prebentzioarekin eta itzalketarekin lotuta esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak. 			
Ordutegia:	7 h / goizak edo arratsaldeak	Prestasuna:	Beharren arabera
Eskura dauden postuak:	2 – 3		
Taldearen kokapena:	Etxe nagusia eta/edo Oronoz-Mugairi		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Trafiko istripuak gidatzean. • Lesioak, materialak eta ekipoak erabiltzean eta lekuz aldatzean. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • C motako gidabaimena izatea. 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Agindutako erreketarako teknikak 			
Behar diren garraio bitartekoak: Furgoneta bat			
Beharrezko ekipamendua:			

TALDEA:		Suhiltzaileen etxeetako laguntzaileak	
Noren menpe: : Esku-hartze Operatiboaren, Suhiltzaile Etxeen, Kanpainen eta Taldeen Atala			
Taldearen helburuak: Suhiltzaileen etxeko arduradunaren eginkizunetan laguntza ematea, eta, horretarako, lantokiko instalazioekin, materialekin eta ekipoekin lotutako lanez arduratzea.			
Eginkizunak: Biltegi zentralako eskaerak kudeatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Eskoletako bisiten kontrola. • Ibilgailuen eta ekipoen kontrol eta jarraipen administratiboa; emate-agiriak eta erregai-kargak. • Langileak kudeatzearekin lotutako laguntza administratiboa; komunikazioak, justifikanteak. • Suhiltzaileen etxeko instalazioen mantentze-lanak • Esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak, lantokiko instalazioekin, materialekin eta ekipoekin lotuta. 			
Ordutegia:	7 h / goizak edo arratsaldeak	Prestasuna:	ez dago
Eskura dauden postuak:	1-2 postu etxe bakoitzeko eta 2-3 postu Iruñeko etxean. * Gutxieneko 1 baliotik gorako postuak beste talde batzuetako postu bihur daitezke, horien kopurua murriztuta eta destinoa abiapuntuko etxean mantenduta.		
Taldearen kokapena:	Egoki den parkea.		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Trafiko istripuak ibilgailuak gidatzean. • Zamak garraiatzearekin lotutakoak. • Lesioak, lanabesa erabiltzean. 			
Posturako ezagutzak <ul style="list-style-type: none"> • B gidabaimena izatea. • 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Informatika ezagutzak: word, excel, datu baseak. 			
Behar diren garraio bitartekoak: Norbera bidaiatzeko ibilgailu bat.			
Beharrezko ekipamendua:			

TALDEA: Prebentzioa eta zabalkundea			
Noren menpe: Aurreneurri, Ikuskapen eta Zabalkunde Atala.			
Taldearen helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Herritarrei oro har prebentziorako oinarrizko ezagutzak ematea. • Erakundeetan autobabeserako kultura zabaltzea. 			
Eginkizunak: Erreferentziazko suhiltzaileen etxean, antolatzea prestakuntza jarduerak, zabalkundekoak, etor daitezkeen kanpoko taldeentzat, honako hauei buruz: sua itzaltzeko bitartekoak erabiltzea eta nola jokatu sute baten aurrean. <ul style="list-style-type: none"> • Simulakroak egitera joatea enpresetara, ikastetxeetara, geriatrikoetara eta beste zentro publiko eta pribatu batzuetara. • Prebentzioaren arloko zabalkunde-jarduerak antolatzea, eta Zerbitzuaren bitartekoak eta ekipoak erakustea Zerbitzutik kanpoko jardunaldietan edo ekitaldietan. • Prebentzioarekin lotuta esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak. 			
Ordutegia:	7 h / astelehenetik ostiralera.	Prestasuna:	Beharren arabera
Eskura dauden postuak:	2 - 4		
Taldearen kokapena:	Iruñeko suhiltzaileen etxe nagusia.		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Trafiko istripuak gidatzean. • Lesioak, ekipamendu berariazkoa erabiltzean. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • C motako gidabaimena izatea. 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Suteen kontrako babeseko eta autobabeseko araudia. • Informatika ezagutzak: word, excel, datu baseak. • Prestatzaileen prestakuntza. 			
Behar diren garraio bitartekoak: Norbera bidaiatzeko ibilgailu bat.			
Beharrezko ekipamendua:			

TALDEA: Instalazioen eta eraikinen mantentze-lanak			
Noren menpe: Gai Teknikoen, Logistikaren eta Ekipoen Atala.			
Taldearen helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuaren instalazio eta higiezin mantentze-lanetan laguntzea. 			
Eginkizunak: Arlo hauetako lan txikiak egitea: igeltserotza, elektrizitatea, iturgintza, saneamendua, pintura. <ul style="list-style-type: none"> • Higiezin prebentziorako eta zuzenketetarako mantentze-lanak egitea. • Aurrekoekin lotuta esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak. 			
Ordutegia:	7 h / goizak edo arratsaldeak	Prestasuna:	ez dago
Eskura dauden postuak:	2-3		
Taldearen kokapena:	Cordovillako suhiltzaileen etxea		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Trafiko istripuak ibilgailuak gidatzean. • Zamak garraiatzearekin lotutakoak. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak <ul style="list-style-type: none"> • B gidabaimena izatea. • Igeltserotza, elektrizitatea, iturgintza... arloetako oinarrizko ezagutzak. 			
Prestakuntza lanpostuan Laneko arriskuei aurrea hartzeko araudia			
Behar diren garraio bitartekoak: Norbera bidaiatzeko ibilgailu bat.			
Beharrezko ekipamendua:			

LEHENTASUNA: 3

TALDEA: Arauzko ikuskapena suteen kontrako babesean			
Noren menpe: Aurreneurri, Ikuskapen eta Zabalkunde Ataleko burua.			
Taldearen helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Suteen kontra instalatu berri diren bitartekoen funtzionamendu egokia egiaztatzea. • Azpiegituretan eta instalazioetan, ebakuazio eta salbamendu bideen egoera egiaztatzea, baita suteen kontrako babes bitartekoena ere. • Datu base bat sortzea eta eguneraturik izatea, eraikin garrantzitsuenek suteen kontra dituzten babes instalazioei buruz. • Zenbait gune interesgarriren suteen kontrako babes bitartekoei buruzko informazioa lortzea. 			
Eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> • Eraikin eta instalazio berrietan, baita zaharretan ere, suteen kontrako babes elementuen instalazio eta funtzionamendu egokiari buruzko egiaztapenak egitea, esaterako elementu hauena: zutabe lehorrak, hidranteak eta beste. • Higiezinak eta instalazioak ikuskatzea, egiaztatzeko ea betetzen diren suteen kontrako babes araudia, baita mantentze-egoera ikuskatzea ere. • Ebakuazio bideen eta suteen kontrako beste sistema batzuk egiaztatzea, ikuskizunak egin behar diren eta jendeketa bilduko duten jarduerak eginen diren esparruetan eta tokietan. • Egindako ikuskapenen txostenak egitea. • Altuera handiko eraikinen berrikuspena, datuak hartzeko, eta gero esku-hartze fitxak prestatzeko, sektore operatiboari informazioa emateko. Higiezinetara bisita eginen da, aldez aurretik jabeekin hitzordua eginda, informazioa biltzeko instalazioei buruz eta suteen kontra dauden babes mekanismoei buruz, baita segurtasunarekin lotutako bestelako informazioari buruz ere, higiezinetako suteen kasurako. • Gune interesgarriak berrikustea, esaterako ospitaleak, geriatrikoak, kanpinak, egoitzak, etab., datuak biltzeko suteen kontra dauzkaten babes bitartekoei buruz. • Tokian bertan bildutako datuak sartzeko base informatikoan. • Prebentzioarekin lotuta esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak. 			
Ordutegia:	7 h / goizak edo arratsaldeak	Prestasuna:	Ez dago
Eskura dauden postuak:	4 – 6		
Taldearen kokapena:	Iruñeko suhiltzaileen etxe nagusia		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Trafiko istripuak gidatzean. • Lesioak, instalazioetako ekipamendua erabiltzean. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • C motako gidabaimena izatea. 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Suteen kontrako babeseko eta autobabeseko araudia. • Informatika ezagutzak: word, excell, datu baseak. • Prestatzaileen prestakuntza. 			

Behar diren garraio bitartekoak: Autoponpa bat eta norbera bidaiatzeko ibilgailu bat.

Beharrezko ekipamendua:

- Autoponpa bat, zutabe lehorrak egiaztatzeko.
- Hidranteak eta sua detektatzeko eta itzaltzeko beste instalazio batzuk egiaztatzeko lanabesak.
- Ordenagailu bat eta argazki kamera bat.

TALDEA: Laguntza ematea, Zerbitzu Operatiborako txandak kudeatzeko eta datuak biltzeko			
Noren menpe: Esku-hartze Operatiboaren, Suhiltzaile Etxeen, Kanpainen eta Taldeen Atala.			
Taldearen helburuak: <ul style="list-style-type: none"> • Langile operatiboen egutegia eguneratzeko erraztasunak ematea. • Datuak euskarri informatikoan biltzea, esku-hartzeetan erabiltzeko. 			
Eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> • Suhiltzaile etxeetako langile operatiboen eta Zerbitzuko arduradunen txanda aldaketak jasotzea eta egutegietarako SAV programan sartzea. • Zerbitzuko langile operatiboen baimenen, lizentzien eta oporren gorabeherak jasotzea eta egutegietarako SAV programan sartzea. • Zerbitzuan erabakitako egutegi operatiboak sartzea egutegietarako SAV programan. • Langile operatiboen esku-hartzeak errazteko interesgarriak izan daitezkeen era guztietako datuak, Zerbitzuko langileek jasoak, sartzea eta biltegitratzea. • Zerbitzu Operatiboarentzako laguntzarekin lotuta esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak. 			
Ordutegia:	7 h / goizak edo arratsaldeak	Prestasuna:	Ez dago
Eskuragarri dauden postuak:	1 – 2		
Taldearen kokapena:	Cordovillako suhiltzaileen etxea		
Arriskuen ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Jarrerarekin eta ordenagailuekin lan egitearekin lotutako lesioak. 			
Postua eskuratzeko ezagutzak: <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko programa informatikoak ongi ezagutzea: Word, Excel, Access. 			
Prestakuntza lanpostuan: <ul style="list-style-type: none"> • Txandak kudeatzeko SAV programa erabiltzeko prestakuntza. 			
Behar diren garraio bitartekoak: Noiz edo noiz ibilgailu bat.			
Beharrezko ekipamendua: Ekipo informatikoa, bulegoko materiala, artxibatze materiala...			